




Irudian ikusi daitekeen eraikin liluragarri hau Garden Santa Fe merkataritza-zentroa da eta Mexikoko hirian kokatzen da, Santa Feko finantza-barrutian hain zuzen ere. Mexikoko nahiz Latinoamerikako lehen lurrazpiko merkataritza-zentroa da, baina badirudi ez dela azkena izango. Izan ere, hiri handietan eraikitzeke alternatiba gisa planteatzen da beheraka eraikitzea. Eraikin hau 2013an amaitu zuten arren, ez zuten 2014ko maiatzaren 15rarte inauguratu eta KMD Arquitectos eta Arquitectoma eraikuntza-entresak izan ziren eraikin honen arkitektura diseinu modernista ematearen arduradunak. 12 mila m² ko lursail baten gainean dago eraikita eta 33 metro neurtzen ditu sakoneran. Bi zatitan banatzen da. Alde batetik, parkea, antzokia eta bulego-eraikinak dituen azalera eta bestetik, lurrazpiko gunea, zeinetan merkataritza-zentroa kokatzen den. Arkitektoek diotenez, eraikinaren konplexutasunarekin lotutako arazo ugari eduki zituzten eraikitzerako unean, baina hauek ebatzea lortu zuten.



1.ARIKETA: EHORTZI ERAIKUNTZA-GARDEN SANTA FE-MEXIKO
2013an EGINA-2014ko maiatzaren 15ean INAUGURATUA
KMD ARQUITECTOS eta ARQUITECTOMA ENPRESEK DISEINATUA
Garazi Gurrutxaga Astigarraga

UPV/EHU - 2023/2024 - 1. MAILA - ARKITEKTURAREN HISTORIA - 2023/10/02


Artelan arkitektoniko honetan material islatzaileak eta gardenak dira nagusi, merkataritza-gunea argiztatzeko. Lau aparkatze maila, hiru solairu establezimentuekin eta merkataritzarako desnibel bat edukitzeaz gain, beste hainbat gune ditu aisialdira bideratuta. Eraikin hau estetikoki ikaragarria izateaz gain, ingurumenarekiko jasagarria da. Izan ere, Garden Santa Fe-n erabiltzen diren material fotoboltaikoek zirkulazio eremuan naiz saltokiak argitzen dituzte. Gainera, gainazalean ageri diren hiru kono horietako bakoitzaren arteko tartea laburra izateak gune ilunik ez egotea ahalbidetzen du. Horrela, energia kontsumoaren %40a aurrezten da eta aireztapen naturala sortzen da. Bestalde, jasagarria izateaz gain, hiri handietan ageri den arazoetako bati irtenbidea ematen dio. Izan ere, altueran eraiki beharrean lur-azpian eraikitzeak hirigunetako gainazaletan sortzen diren trafiko eta mobilitate arazoak konpontzen ditu.



- a) HAURRENTZAKO LOKALA
- b) JATETXEAK
- c) MERKATARITZA GUNEA
- d) ANCLA SANBORNS



- e) FOOD COURT
- f) ENTRETENIMENDUA
- g) ANCLA CITY MARKET
- h) ANDENA

i) APARKALEKUA



1.ARIKETA: EHORTZI ERAIKUNTZA-GARDEN SANTA FE-MEXIKO
 2013an EGINA-2014ko maiatzaren 15ean INAUGURATUA
 KMD ARQUITECTOS eta ARQUITECTOMA ENPRESEK DISEINATUA
 Garazi Gurrutxaga Astigarraga

Eraikin hau hainbat arrazoren ondorioz aukeratu dut. Batetik, bistan da eraikin oso berezia dela, ikusten duen orori, arkitekturaren inguruko jakinduriarik ez eduki arren, sorpresa sentsazioa sentiarazten baitio. Bestetik, eraikina aztertuz, liluragarria da bere bere forma konikoa eta hau osatzeko erabilitako materialak, besteak beste, beira. Material hau erabiltzeak eraikinaren barnean dagoen orok argitasun sentsazioa izatea ahalbidetzen du, zeina ikaragarri gustatzen zaidan. Gainera, funtzio sozial bat betetzen duela deritzot, aisialdirako espazio bat izateaz gain, hainbat zerbitzu eskaintzen dituelako. Azkenik, hiriari begira, hein estetiko bat betetzen duela esango nuke, hiriaren erdigunean kokatzen den eraikin paregabe bat delako, zeinak hiriari itxura ona eta prestigioa ematen dion. Hau guztia kontuan hartuta eraikin hau ikaragarria dela iruditzen zait.



1.ARIKETA: EHORTZI ERAIKUNTZA-GARDEN SANTA FE-MEXIKO
2013an EGINA-2014ko maiatzaren 15ean INAUGURATUA
KMD ARQUITECTOS eta ARQUITECTOMA ENPRESEK DISEINATUA
Garazi Gurrutxaga Astigarraga

UPV/EHU - 2023/2024 - 1. MAILA - ARKITEKTURAREN HISTORIA - 2023/10/02